

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO-KANALAK

Gure proiektua ezagutarazteko, bi motatako komunikazio kanal erabiliko ditugu: on-line bidezkoa eta off-line bidezkoa.

ON-LINE BIDEZKOAK

- **Web gunea.** Hau [Wix](#) izeneko webgunearen bitartez sortuko dugu. Webgune honek bakoitzak bere webgune propioa egiteko balio du, guztiz dohainik. Ordenagailuz sortua izan arren, mugikorrean erabiltzeko aukera ere izango da. Bertan, gazteek behar dezaketen informazio guztia eskuratzeko aukera izango dute: datak, kokalekua, prezioa, eskeintzen diren zerbitzuak...
- **Instagram.** Jakina den bezala, gaur egun sare sozialak izugarritzko garrantzia eskuratu dute, beraz, gure proiektua ezagutzera emateko irtenbide edo baliabide bikaina dugu aplikazio hau. Aplikazio hau ere guztiz doakoa denez, ez dugu kosturik izango. Bertan, egun bakoitzean egindako ekintzen argazkiak zintzilikatuko ditugu. Horretaz gain, egunero kanpinean dauden pertsonen bideo txiki bat grabatzeko aukera emango diegu, beraien eguna nolakoa izan den adierazteko.
- **Facebook.** Bertan, argazkiak zintzilikatzeaz gain, gure web-gunean idazten dugun informazioa laburtuta izango dute gure bezeroek. Honek ere ez du kosturik.

OFF-LINE BIDEZKOAK

- **Kaleko kartelak.** Kartel hauek herri desberdinetako kaleetan ipiniko ditugu. Horietan, irudi erakargarriak ezartzeaz gain, informazio funtsezkoena eskeiniko dugu (ekintzak, datak, kostua...). Hauek egiteko 300€-ko aurrekontua izango dugu.
- **Ahoz-ahozko komunikabidea.** Gainerako komunikazio kanalek gazteengan eragina izatea eta beraien artean kanpinaz hitz egitea espero dugu; izan ere, modu ezin hobea da esperientziak, iritziak, etab. partekatzeko.
- **Hezkuntza zentroetara zabaldu.** Gazteen gehiengoa ikasten egongo denez oraindik, informazioa zabalduko dugu hezkuntza zentroetara eta zuzendaritzakoei ikasleei helarazteko eskatu. Horrez gain, gu geu ere joan gaitezke zenbait zentrotara informazioa aurrez aurre ematera; horrela, ikasleek informazio zuzena eskuratzeko eta sortutako galderei erantzuteko aukera izango dute. Gu ere atera gitezke onuradun elkarbanatze honetatik, gazteen iritzia entzungo baigenuke. Honek, informazioa email bidez banatzeak edo guk geuk hitzaldiak emateak, ez du kosturik izango.